

## FABIOLAREN ISTORIA

Fabiola 50 urteko emakume ekuadortarra da. Lan bila etorri zen Espainiara, Ekuadorren duen familia mantentzeko.

**Sei urtez han-hemenka garbitzaile eta barneko etxe-langile gisa lan egin ondoren**, hiru kontratu egitea lortu zuen lan egiten zuen etxeetako batzuetan.

Eta adineko gizon bat zaintzen ari zenean, egoitza-baimena lortu zuen; baina, handik gutxira, gizona hil egin zen, eta Fabiolak ezin izan zuen lanaldi osoko beste lanik aurkitu.



**FABIOLA**

### Berriro ere irregulartasun-egoeran, eta lan billa

Fabiolak berriro hasi behar izan zuen hasiera-hasieratik.

**Kontratuak lortu zituen hiru etxe ezberdinetan.** Bitan, garbitu eta kozinatu egiten zuen, eta hirugarrenean, gauetz, adineko andre bat zaintzen zuen. **Oso nekatuta zegoen. Astean, 40 ordu baino gehiago egiten zuen lan**, eta, batik bat, azken etxean lo egin beharra... egunero zen zaila, andrea zaindu behar zuen eta.

Dena den, **aurrera jarraitzea erabaki zuen**, beharrezko agiri guztiak bildu zituen, **eta baimena eman zioten.**

Handik gutxira, etxeetako batean orduen kopurua murriztu egin zioten, **baina harengatik kotizatzen jarraitzea erabaki zuten** kotizazioaren kopurua (soldatetik kenduz), eta, horri esker, **lehenengo baimena berritu ahal izan zuen.** Bi urterako baimena lortu zuen. Orduan, **koronabirusaren eraginez, alarma-egoera iritsi zen**, eta egoera horren aurrean, andrearen seme-alabek Fabiolaren zerbitzuei uko egitea erabaki zuten.

**Berriro hasi behar izan zuen hasieratik. Amairik gabeko ziklora itzuli zen:** beste kontratu bat aurkitu behar zuen lehenbailehen. Fabiolak gehiago kotizatu behar zuen, baimena berrituko ziotela bermatzeko.



## ISTORIOA ULERTZEKO **GAKO BATZUK**

- Pandemia bete-betean, "**Territorio Doméstico**" etxe-langileen elkarteak gutun bat idatzi zion Pedro Sánchezi, sektorearentzako laguntza eskatzeko. Gutunean, hauxe zioten: "**Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, ia 600.000 etxe-langile eta zaintzaile (% 96) emakumeak gara, eta horietatik 400.000 inguru baino ez gaude Gizarte Segurantzaren afiliatuta.** Gutxi gorabehera erdiak gara beste herrialde batekoak, baina migratzaileak gara barneko etxe-langile gisa lan egiten dugunon gehiengo handia. **Itxura guztien arabera, erakunde publikoek eta gobernuek ez lehen ez orain ikusi nahi ez dituzten zainketa-premia batzuk asetzen ditugun azken kate-maila gara** oraindik ere." ([Irakurri gehiago](#))
- Etxe-langile batentzat ez da erraza lege-**baldintza** guztiak betetzea, bere lanaren bidez egoitza-baimena lortu ahal izateko. Besteak beste, **asteko 40 orduko kontratu bat** eskatzen zaie, **iraupen mugagabekoa, eta gutxienez 1.000 euroko soldata.** Horrez gain, enplegu-emaileak frogatu egin behar du bere etxean erroldatutako pertsona kopuruaren araberako baliabide ekonomikoak dituela.
- **Espainiako estatuak oraindik ez du sinatu "etxe-langileen lan duinari buruzko" 189 Hitzarmena** ([hemen irakur dezakezu hitzarmena](#)). 2011n egin zen hitzarmen hori, eta, besteak beste, Portugalek, Italiak eta Alemaniak sinatu dute. **Babes espezifikoaren ematen die etxe-langileei**, gainerako soldatapekoen maila berean jartzeko.
- «Analisia eta proposamenak, Covid-19ak zaugarritasun-egoeran eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonengan izan dituen eraginak arintzeko» Caritasen dokumentuan, **Caritasek bereziki zaugarria den talde gisa identifikatu ditu <<etxe-langileak>>** haietako askok ez dute lan-kontraturik, eta diru-iturri guztiak galtzen dituzte, ezin baitiote beren lan-jarduerari eutsi. Eta, kontratua izanik ere, kontratua galtzen dutenean, ez dute eskubiderik langabezia-prestakuntza jasotzeko».

## GURE ERROETAN

### Aintzakotzat hartzeko zenbait aipamen:

- “Immigratzaileak jasotzen dituzten herrialdeetako erakundeek kontu handiz ibili behar dute tentazioa zabaldu ez dadin atzerriko langileak esplotatzeko, bertako langileei bermatzen zaizkien eskubideak ukatuz, eskubide horiek denei bermatu behar baitzaizkie bereizkeriarik gabe.” ([Compendio DSI nº 298.](#))
- “Lan-emigrazioa ezin da inola ere bilakatu esplotatzeko aukera bat; gizarte horretako beste edozein langilerentzat baliagarri diren irizpideek baliagarri izan behar dute atzerriko langileentzat. Arrazoi handiagoz, ezin da esplotatu emigratzaileak bizi duen hertsapen-egoera.” Laborem Excersens. Joan Paulo II.a (1981).

## TALDEAN EZTABAIDATZEKO GALDERAK

- > Zergatik da **etxeko lanen esparrua** ekonomia-jardueraren **lan-sektore ikusezin eta lausoenetako bat?**
- > Imaginatu une batez **atzerriko etxe-langileek lan egiteari uzten diotela. Zer gertatuko litzateke gure gizartean?** Bertakoek beteko al lukete haien lekua? Zergatik?
- > **Ekonomia-jarduera askok ekoizpen-kostuak murriztu behar dituzte errentagarriagoak izateko;** besteak beste, zainketen sektorean ere gertatzen da hori, baina ez etxeko lanetan eta zainketetan. **Zure ustez, berdin onartzen al da etxeko lanen esparruan?**